



## Elbira Zipitria

Maria Dolores AGIRRE'k

Emandako agindua bete nairik, emen natorkizue Elbira zanari buruz, Elbiratzaz zertxobait esateko asmoz. (Irakasle bezela, irakasle lez azaltzeko, bere irakaskideak egokienak, noski. Oien esku utzi dezadan, beraz, irakaskintzaki-koa.)

“Adiskidea eta ardoa, urteeta-koak” esan oi da eta orixe zan guretzat Ira: urteetako adiskide miña. Ori dala-ta, nik bere izakera eta bizikerari dagozkionak jaulki-ko dizkizuet.

### Kristau ta euskaldun

Elbira, berari ain gogoko zitzaion Ira, ezer ba zan da, uraxe bereziki eta guztien gain, kristau eta euskaldun. Ona emen ao bete-

ko bi itz mardul; bene-benetako kristau eta euskaldun zintzo eta gartsua izan bait zan, bere bizi osoan, Elbira.

Azken urteetan gaiso xamarrik ibilli bazan ere, amaika lan eder eginda joan zitzaigun gure artetik. Balio aundiko irakaslea eta pedagoga galdu zitun eskualde osoak, il zanean. Ark utziriko uts-unea, ez erraza betetzen, gaitza baizik.

Doai eta mendu baliotsuz. Bestalde, bazuan aparteko igarmena ere; artxek ezagutu ongi, etorkizunaren berri; ark aintzina esana, andik ogeitaka urtera itzez-itze bete izan da. Ez zan askotan bere esana aintzakotzat artzen; garaian jaramon egin izan bagenio, beste

oillar batek joko zigun kukurruku.

Besteak beste, bere gogo beteko zaletasuna, irakaskintza zuen. Agortu eziñeko etorria berezkoa. Elbirakin egiten zan itz-asperturik laburrenean ere, aldioro egotziko zizun zerbait jakingarri. Berezko arrobi oparotsuaren jabe bait zan.

Bear bada itzegin eta idatzi baiño leen, ongi ausnartuko zuen erabilli bear zuen gaia, baiña baita ondorenean luze jo gabe, argi asko, esaldi laburretan, sakonki adierazi ere.

### **Euskera gaietan zeatza**

*Euskera gaietan zeatza, lan-gose zintzoa. Ez zan eginberrak erdizka egitearen zale; gizakiaren menduak, egoki eta zuzen erabiltzeko zirala zion eta jendeak askotan zitaltzat jotzen bazuen ere, berezkoa zuen ateraldi zorrotza. Estua zan, estuegia bear bada, baiña leenen-leenen bere buruakin.*

Gogoan dut Donostian izan genun leen euskal-meza. Igandea zan. Jendetza pozik eta irrikiz, urteen buruan euskeraz esandako meza entzuteko. Leporaiño betea eliza. Ura gaztez, ura sasoikoz! Non dira gazte bikain aiek? Eragozpenaren ondorena. Elurtean nabaitu oi dan ixiltasuna zerion elizak. Asi da meza-emailea Epistola irakurtzen: ANAIK! esan zuen zoriz, aulkian exerita zegon Ira'ren zarrara ez zan makala izan. Meza

bukatu orduko, an doa sakristira. Entzutekoa izango zan aren itz-parrastada. "Ez dakizu Ama-Aginte, matriarkadoaren berririk? ANAIK... eta arrebak... betiko leloa, emakumeak sasirako" esan da, atera.

Etorri da zortzi-aldiko meza. Danok ixilik. Epistolari apaizak: ANAI-ARREBAK! Ez zion aurreko igandean ainbateko erasanik, baiña... tira... meza ondorenean sakristira: Ez al dakizu bi itz orde, bakarrakin adierazi daitekena erabiltzen: SENIDEAK?... Ura lasaitasuna gu eliztarrantzat, SENIDEOK izena entzun genuenean. Orrelakotxea zan bada gure Elbira, eta izakera orri esker bere ingurukoak aunitz ikaskizun eder ikasiak.

### **Asko jasana**

Irurogeitaka urteetan euskararen alde, euskera eraikitzen, euskera goieneko mailara jasotzen Elbira'k egin zitun lanak, izugarriak izan ziran. Lanik aundiena, euskerari iraunazten; orain berrogeitaka urte ez zan txantxea euskeraz itzegitea, antzematen zion beraka zijoala, beti bildur; ori dala ta, bere-bereak izan zitun, beti nekalaria eta arrantzalea; Elbira'rekin batera oiek izan bait ditu euskerak zk zutaberik sendoenak.

Elbira gaztetan txoria bezain alaia zan, beti abeslari, gerora goibel biurtu ba zan ere. Bizikera ere

ez guztiz eroso eta elkortu egiten da bat. Gazterik umezurtz, guda-tean erbestera bearra, senideak urrun; urte aiek ez zitun legunak izan. Ori bai, aitortu bearra dago. beti izan zitun aide, adiskide eta laguntzaile leial eta bikaiñak. Erbestean bizi bear izan zuenean, etxepe gozoa eta laguntza ez zitzazkion iñoiz faltatu.

### **Euskera apaiñaren alde**

Guda amaitu eta Donostira-tzean, ez zan ba "auntzaren gauerdiko eztula" euskera erakus-tea! Ala ere gogotik ekin zion; ez zan kokildu; gero ta gero ermoago jarrai zuen Ira'k.

Euskera gaizki erabiltzea aren-tzat mingarriena; ezin eraman gaizki esandako itzik eta aditzik; ainbat gutxiago barkatuko zion euskaldun izanik, TZA eta TSA bereizten ez zituenari. Ez zuen atzera egiten, alik eta ongi erakutsi arte.

Aparteko itzala zioten ezagun eta lagunek. Kaleetan barrena erderaz ari zirala Elbira begiztatzen ba zuten, ikusi orduko denak euskeraz. Arekin itzegiterakoan, jendeak arreta aundia jarri oi zuen ondo itzegiten, naiz ta gañontzian zabarkeriz jardun. Orri eskerrak, urteetan ardura izanik, euskera orraztua ta ederra erabilli izan da Donostian.

### **Aurtxoan ardura**

Aurren gurasoekiko betebe-arak ere kezkatzen zuten. Askotan txikien aurrean, etxeokak kontu-ratu gabe zer-nai esanaz jarduten zirala eta txikiak ezarian ezarian dana jasotzen dutela. Ori adieraz-teko, bere ikastolako gertakizun au esan oi zuan: Umeak, oi beze-la, lurrean exeri ta abere izenak ikasten ori omen ziran: Arkumea-ren ama, ARDIA; aita, AARIA. Moxalaren ama, BEORRA; aita, ZALDIA. Txekorraren ama, BEIA; aita, ZEZENA. Txiki ba-tek IDIA zer duk, pa? Erdi lotan zegola zirudin ark: OSABA. Umea beti erne dagola zion.

Arazo onek ere larritu zuen, ba, garai batean: Umeei, ez euskaldü-nei bakarrik, baita erdeldunei ere, Jainko senik ez zuten otoitz ari-ñak erakusten zitzaizkiela eta lau, bost, sei urteko aurak adimen ar-gia izanik, edozer ezkutuko siñes-gai bereala jasotzen zutela eta jo-ta-ke ibilli, olerkari ezagunengana joanaz eta azkenik bi olerki ba-liotsu osatu zitun, unkgarriak be-netan. Andre Marikikoa sortzeko, esaten zuan; txikiari ez dago beste ama bat aitaterik, berea tartean ez dala; danik eta ama zatarrena ere bere txikiarentzat politena; ar-pegi alai jarri oi dute aipatu utsa-rekin eta bera pedagoga izanik, olerkariak eta biak orra eder as-koak egin:

Andre Mari'rena:

**JAINKOA**'ri:

Jainko ederra,  
On-ona eta aundia,  
Zeruko Aita;  
Oiuka zure aurtxoak  
**GORA JAINKOA!**  
Zure nauzu oso osoa!

Zeruan ba dut Ama,  
Andre Mari ona,  
Etxean beste ama,  
Jainkoak emana.  
Bien eskutik noa  
ni Josu'rengana,  
bien eskutik noa  
Zuregana, Jauna.

### **Pedagoga aparta**

Besteak beste, benetan zan Elbira zana, pedagoga jakintsua, argi aparta, adimenduna. Asko ikusia eta asko ikasia; oiek egotzi oi dute arrobi oparotsua. Matematikasirakasle ere iaio azkarra.

Iru izkuntzaren jabe izateak aparteko kultura, jakintza ezarri zion. Euskera, erdera eta prantzeraz zein baiño zein zekizkin eder-

kiago, baiña danen gain eta bere bere, euskera izan zuen.

Iñor bada ta Elbira zan Donosti zalea, Donosti zaar zalea; ez zukian ark bere Donosti Zaarreko txokoa ezergatik trukatu. Egia esan, Fermin Calbeton kaleko ikastola-gelatxoak aparteko giroa, aparteko kutsua zerion. An iragan zitun txikiakin, bere biziko unerik gozoenak.

Ikastola orretan entzun nion bein, umeak gelan sartu zai zegola: Jauna: Arindu zaidazu eskua zigortzerakoan eta leundu laztantzerakoan. Aaztu erazi zaizkidazu eguneroko naigabe eta kezka; ez ditzadala nabarmendu txikiaren aurrean, goibeldu egingo liraketa. Jauna, alaitu nazazu!

Elbira, uraxe benetako kristau, euskaldun eta pedagoga!

Berak ainbat maite zitun zugaitzak bezelaxe, itzala ta arnaria eskeini zitun eta zugaitzak lez,

zutik bizi  
eta  
zutik il zan

